

**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2014-01-27ko OSOKO BILKURA**

Vitoria Gasteiz
Tomas Zumarraga Dohatsua kalea 67. zk.

DEIALDIA EGIN DUENA:

Presidentea: Juan María Aburto Rique jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

BERTARATZEA**A) KIDE BAKARREKO ORGANOAK:**

- **LEHENDAKARIORDEA. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.-** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea, **jarduneko presidentea baita**, presidentea ez dagoelako.
- **IDAZKARIA. Ángel M^a. Manero González jauna.** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako Gizarte Gaietarako arduraduna.

B) KONTSEILUKO KIDEAK

Lide Amilibia Bergaretxe andrea.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

José Luis Madrazo Juanes jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.

Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

Ignacio Basañez Alfonso jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako zuzendaria.

Miren Dorronsoro Iraeta andrea.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria.

José Antonio De la Rica Giménez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko EAEko Koordinatzaile Soziosanitarioa.

Imanol Agote Alberro jauna.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen zuzendaria.

M^a Begoña Garamendi Ibarra andrea.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatze zuzendaria.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

José M^a Barrutia Legarreta jauna.- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria.

Leyre Sologuren Etxenagusia andrea.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendaria.

María del Río Pereda andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Izaskun Uriagereka Legarreta andrea.- EUDEL (Mungiako alkatea).

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteko teknikaria).

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialak.

M^a Arantzazu González Barquín andrea.- Euskadiko Hezitzaile Sozialen Elkargoa.

Karmele Acedo Gil andrea. (Servicios Sociales Integrados S. Coop.elkartea).Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

Amaia López Iriondo jauna.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Manu Moreno Gil jauna. (Euskadiko EAPN).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Miguel Angel Ruiz Díez jauna. (Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea).- Droga-mendekotasuneko elkarteen ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea. (HIRUKIDE-Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartea).- Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Francy Fonseca Linares andrea. (Harresiak Apurtuz koordinakundea).- Etorkinei laguntza emateko GKEaren Koordinakundeko ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea. (Gizarterako elkartea).- EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordeko ordezkaria.

Igor Navarro jauna. (ELKARTEAN konfederazioa).- EAEko Desgaitasun Fisikoren Bat Duten Pertsonen Koordinadora Konfederazioko Ordezkaria.

Pablo González Gutierrez jauna. (FEVAS federazioa).- Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.

M^a José Cano Mesías andrea. (FEDEAFES federazioa).- Gaixotasun Psikikoa Duten Pertsonen Eta Senideen Elkarteen Euskadiko Federazioa.

Aitor González Angulo jauna. (ONCE Euskadi).- EAEn zentzumeneko desgaitasunen alorrean lan egiten duten elkarteen ordezkaria.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna. (EUSKO FEDERPEN federazioa).- Euskadiko Pentsionisten eta Erretiratuen Elkarte Probintzialen Lurralde Federazioaren ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE

PRESIDENTEAK. **Juan M^a Aburto Rique jaunak.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Ana M^a Reka Esparza andreak.- E.J. Segurtasun Saileko sailburuaren Kabinetearen zuzendariak

Ibon Uribe Elorrieta jaunak.- EUDEL (Galdakaoko alkatea).

Emilia Málaga Pérez andreak.- UGT Euskadi.

ETORRI EZ DIREN KIDEAK

Eusko Jaurlaritzako lan-arloko sail eskuduneko **kide bat**.

Eusko Jaurlaritzako giza eskubideen arloko sail eskuduneko **kide bat**.

Legebiltzarra ordezkatzeko **kide bat** (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

EUDEL ordezkatzeko **kide bat** (Euskadiko Udalen Elkartea).

LAB sindikatua ordezkatzeko **kide bat**.

ELA sindikatua ordezkatzeko **kide bat**.

Euskadiko CCOO sindikatua ordezkatzeko **kide bat**.

Enpresako GKEak ordezkatzeko **hiru kide** (CONFEBASK).

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatzeko **kide bat**.

EAEn joera sexualarekin lotutako bazterkeriaren kontra lan egiten duten gay, lesbiana eta transexualen GKEak ordezkatzeko **kide bat**.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala ordezkatzeko **kide bat**.

KONTSEILUAK GONBIDATUTAKO BESTELAKO ORDEZKARI BATZUK (KIDEAK EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkai, Araba eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargoetako ordezkaria.

Ibán Arrien Celaya jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko ordezkaria.

Noemi Ostolaza Arcauz andrea.- E.J. Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

.....

LANDUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Behar adinako quoruma egonda, osoko bilkura lehenengo deialdian baliozki eratu da, idatziz lehenago bidalitako deialdian adierazitako egunean eta lekuan. Saioa 2014ko urtarrilaren 27ko 10:00etan hasi da presidentziak zehaztutako **gai-zerrenda** honekin:

1. Aurreko bilerako (2013-07-03) akta onestea.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku Hartze Integralari buruzko dekretuaren aginduzko txostena banatzea.
3. EAEko Gizarte Zerbitzuetako III. Txostenari buruzko Gomendioen Batzordearen ondorioak aurkeztea.
4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren gaineko informazioa ematea. Gaur egungo egoera eta hurrengo garapen arauemailea.
5. Galde-eskeak.

.....

Jarduneko presidentek ongi-etorria eman du eta osoko bilkuran dauden pertsonei bertan egotea eskertu die. Aldi berean, presidentea ez egoteagatik (nahiz eta berak bertan egoteko gogoia izan) eta gaurko bilkurara ezin dutela joan adierazi duten kideak ez egoteagatik barkamenak adierazi dizkie osoko bilkuran daudenei.

Bilkuran dauden pertsonek beren burua aurkeztu dute. Ondoren, presidentek organo hau deitzeko izan diren data-aldaketengatik barkamena eskatu du. Aldaketa horiek agenda guztiak bat ez zirelako etortzen egin dira, baita bilkuran parte hartzen duten eragile guztiak asebetetzeko ere. Hori guztia esanda, gai-zerrendako gaiekin hasi da.

1. puntua.- Aurreko bilerako (2013-07-03) akta onestea.

- **Iñigo Pombo** jaunak «akordioen aktak» lantzeko bere sailak duen borondatea espresuki adierazi du; zeren, bestela, pertsona bakoitzak esaten duena jasotzea eta hori guztia dokumentuan behar bezala adieraztea oso zaila da. *«Inork berak esandakoa espresuki jasotzea nahi badu esan dezala eta hala jasoko da, baina jarraituko den bidea akordioen aktena izango da.»* Horrela idatzi da akta hau, gaur bere bere onespina jaso dezakeena.

- FEDERPENeko ordezkariak irizpide berriarekin ez dagoela ados adierazi du, baina, Batzorde honetan lantzen dena garrantzitsua denez, 4. puntua aldatzea eskatu du osoko bilkura hartan esan zituzten gogoeta batzuk ere jasotzeko (GZEK-ko Gomendien Txostenean ere jasota daude horiek) eta horiek guztiak idatziz idazkaritzara igorriko dira.

Osoko bilkurak akta onartzea adostu du, eta FEDERPENen izenean, Txema Odriozola jaunak eskatutako oharra ere jaso dira aktan.

2. puntua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku Hartze Integralari buruzko dekretuaren aginduzko txostena banatzea

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** dekretua aurkeztu du, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak (Foru Aldundiek hala eskatuta) 2008. urtean gogoeta bat sustatu zuela eta Batzorde bat eratu zuela «EAEko Laguntza Goiztiarreko Esku Hartze eredu bat» egiteko gogorarazi du. Hori guztia 2010. urtearen erdi aldera amaitu zen; aurreko legegaldian (2012. urtearen erdi aldera) *Erakundeen Arteko Batzorde* batek arautze-proposamen bat aurkeztu zuen, eta proposamen horren ondoren, 2013ko uztailaren 17an, baterako hasiera-agindu bat egin zen, inplikaturik zeuden Eusko Jaurlaritzako hiru sail hauen artean: Osasun, Enplegu eta Gizarte Politika eta Hezkuntza Sailak. Sail horien artean egindako aginduen bidez, gaur Kontseilu honek txostena onartzeko aurkeztu den dekretua egiteko prozedura hasi zen.

Sailburuordeak prozesu horretan jendaurreko informazioa egin dela eta horri dagozkion alegazioak jaso baita aztertu direla, eta horietako asko testuan jaso direla gogorarazi du eta «gure ustez, testua aberastu dute». 2. alderdi jo ditu oso garrantzitsutzat:

1.- Arreta Goiztiarrak 0 - 6 urteen aldia hartuko du, nahiz eta orain arte 0 - 3 urteen aldia hartzen zuen.

2.- Dekretuak jarduera hau oinarritzko 2 arrazoiengatik arautu nahi du:

- Bizitzako etapa honetako jarduketak ezinbestekoak direlako ondoren pertsona gara dadin.
- Zeren baliabideak sakabanatzeak ume batzuk tratamendu bikoitzak izatea (behar dutena baino gehiago) eta, aldiz, beste batzuk behar duten tratamendurik gabe egotea eragin baitezake.

Antolatuta egon behar duen arreta baten aurrean gaude, zeren bakoitzari (osasungintza, hezkuntza, Gizarte Segurantzak, etab.) zer dagokion adieraztean kontrako iritziak baitaude. Horregatik, Kontseiluaren lanak eta ondorengo dekretuak *Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT)* sortzearen aldeko aukera egiten dute. Talde horiek inplikaturik dauden 3 sistemetak teknika eratu dituzte eta ume bakoitzaren plana ezarriko dute, baita plana nork emango dion ere. Baina berezitasun batekin, zeren (12.6.b) artikularen arabera AGBTek egindako) *Arreta Pertsonalizatuko Planak* «sailen arteko jarduketa-konpromisoa jasoko du. Hala, bai Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldearen bai esparru sanitarioko, hezkuntza-esparruko edo esparru sozialeko arreta goiztiarreko bestelako eragileentzako aurreikusitako jarduketak bertan jasoko dira.»

Gainera, jarduera honetan antolamenduan berme handiagoa lortzeko, Dekretuak ARRETA GOIZTIARREKO ERAKUNDEEN ARTEKO KONTSEILU eta ARRETA GOIZTIARREKO BATZORDE TEKNIKO bat sortzea aurreikusten du.

Azkenik, Dekretuak Haurren Garapenerako eta Arreta Goiztiarreko Zentroak behar bezala arautzen ditu, beti haurraren arreta kontuan izanda. Zentroak homologatzeko irizpideak ere zehaztu dira, eta, horretarako, errealitatea Dekretua lehen aldiz idatzi zenean baino gehiago kontuan hartzen duen idazketa erabili da.

Gizarte Zerbitzuetako Legeko 48.3a) artikulua betetzeko, hau da, GZEKren funtzioa gisa, izaera orokorreko xedapenen proiektuen berri eta Katalogoak edo beste sistema batzuekin baterako zorroak aipatzen dituzten xedapenen berri nahitaez ematea ezartzen duen artikulua betetzeko, Dekretua Kontseilu honen txostenaren onespeneraren mende jarri da, eta modu formalean botatu baino lehen, parte-hartze hauek izan dira:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia. M^a del Río** andreak GSko Erakundearen arteko Organoaren bilan ere dekretu honi buruzko txostena onartu behar zela, eta Gipuzkoak kontra botatu zuela gogorarazi du. Zergatia ez da filosofiarekin, arautzearekin eta jarraitutako prozesuarekin (horiek babesten baitituzte) ez daudela ados, baina funtsezko puntu bat dakusate, hain zuzen, Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politiketako eskumen horiek ez direla argi gelditzen: *«Zehazki, eskumen horietako bakoitza nori dagokion eta ekintza horietako bakoitza nor finantzatzeko duen.»* Ebaluazio-taldeak erabakitzea edo zehaztea ondo iruditzen zaie, baina uste dute ezin dela kasu bakoitzean erabakia hartu, baizik eta erabakiak orokorragoa eta estandarizatuagoa izan beharko lukeela.

- **Arabako Foru Aldundia. Paloma Aranceta** andreak egoera berdina antzeman dutela eta Erakundearen arteko Organoan Dekretuaren aldeko botorik ez zutela eman adierazi du. Filosofiarekin eta lan-ildoarekin ados daude *«ildo horretan jarraitu behar du, gainera»*, zeren erakundearen arteko lankidetzak eta koordinazioa beharrezkoa da, *«baina dekretuan sistema bakoitzaren eskumenak zein diren eta sistema bakoitzak bere gain hartu beharrezkoa zer den hasieratik ez bada argi uzten, azkenean, akaso, ez da operatiboa izango.»* Beraz, ñabardura horiek ondo eginda dituen dekretu bat nahiago dute eta bakoitzaren funtzioa edo eskumena eta finantzaketa zein den garbi adieraztea, egunerokoan gorabeherarik ez izateko. Azkenik, zentroak arautzeko gaiari dagokionez, ekarpenak egin zituzten (nahiz eta horietako bat ez zen jaso); izan ere, dagoeneko badituzten zentroak eta egiten ari diren zentro berriak muga ditzakeela eta horietan arazoak sor ditzakeela ikusten dute.

- **Bizkaiko Foru Aldundia. Sergio Murillo** jaunak Dekretuak Bizkairako gaur egungo errealitatea arautzeko esparru gisa balio duela eta, bertan, osasun- eta hezkuntza-sistema gizarte-zerbitzuekin koordinazio hobeezinaekin funtzionatzen ari direla adierazi du (urte eta erdi daramate funtzionatzen), eta hori guztia publikoki eskertu du. Hori guztia azpimarratu nahi du, zeren (bere ustez) sistemak horien antolamendurako arau arauemaileak egon baino lehen ere koordinatzen dira. Eztabaidaren eta ekarpen publikoaren prozesuaren ondoren, eragile batzuek ekarpen batzuk egin dituztela jasota gelditzea nahi du. Izan ere, eragile horiek arreta goiztiarreko programak ari dira egiten egun. Horregatik guztiagatik, Erakundearen arteko Organoan bezala, Bizkaiak dekretua babesten eta onartzen du.

- **FEDERPENeko Txomin Odriozola** jaunak dekretu on bat dela uste du bere *filosofiarengatik* (printzipio zuzentzaileak, koordinazio soziosanitarioko organoak, arreta pertsonalizatu integralaren plana, elkarriketa eta parte-hartzea, esku-hartzeari dagokion hurbiltasuna, etab. baititu) eta beste dekretu batzuetara zabaltzea gustatuko litzaiokeela adierazi du, esaterako, gizarte-zerbitzuetako zorrora (batez ere, pertsona kontuan hartzen duen arreta integralari dagokionez). Filosofia hori, oro har, adinekoei aplikatu dakieke.

- FEVAS federazioko **Pablo Gonzalez** jaunak (FEDEAFES federazioaren eta ELKARTEAN konfederazioaren babesarekin) bere garaian alegazio batzuk egin zituztela adierazi du. Alegazio horietako batzuk testuan jasota daude; beraz, Dekretuaren aldeko iritzia daukate. Gai bat faltako litzateke, eta 9. artikuluko 4. paragrafoan arautzen dena zabaltzea eskatu du, gaur egungo borondate-maila gainditzeko eta erakunde esanguratsuenek parte-hartze formala edo egiturazkoa izateko aukera irekitzeko. Erakunde esanguratsu horiek desgaitasunaren mundua ordezkatzeko dutenak izango lirateke, esaterako, EDEKA, etab.

- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko **Iban Arrien jaunak** dekretua egokitzen jo du eta babestu egin dute, eta, batez ere, medikuaren figura kontuan hartzen duen ikuspegia dagoela adierazi du, gehienbat, 12. artikuluan (Taldeen balorazioari buruzkoan). Zeren eskumenak dituzten bestelako profesional sanitarioak ere bai baitaude. Gauza bera gertatzen da txosten tekniko adierazgarriari buruzko 16. artikuluan ere (ez dira txosten «medikoak» «sanitarioak» baizik, kolektibo profesional guztiak kontuan hartzeko; esaterako, erizaintza, fisioterapia, logopedia, terapia okupazionala, etab.).

- EAEko Hezitzaile Sozialen Elkargoko **Arantza González** andreak hezitzaile sozialak dekretuaren alde daudela adierazi du, zeren aurrera egitea esan nahi du. Baina, erabilitako terminoetan «utzikeria» egon dela adierazi du, zeren 13. artikuluan, esku hartzeko motan bestelako diziplinak ere kontuan hartzen dira; esaterako, gizarte-hezkuntza», baina, ondoren, 22. artikuluan (pertsonalaren betekizunetan) «Gizarte-lana» aipatzen da. «Zentzu zabalean jarduten dela uste dugu, baina «Gizarte Segurantzako Euskal Sistemako gizarte-langileak» jartzean, ez dugu uste gizarte-hezkuntzaren barnean gaudenik.» Aukerako idazketa gisa, hau proposatu du: «Gizarte Zerbitzueta Euskal Sistemako profesionalak, gizarte-langileak eta gizarte-hezitzaileak barne» «gizarte-lan» terminoak batzuetan duen anbigüitatearengatik.

Parte-hartze horien ondoren, BOTAZIOA egin da (eskua jasota), eta, ondorioz, bertan zeuden gehiengo osoarekin dekretuaren zirriborroa onartu da, baina kontrako bi botoarekin (Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundienak) eta bi abstentziorekin (Elkartean konfederazioarena eta Gizarte-laneko Elkargo Ofizialeko diplomatuenak)

• Kontseiluko jarduneko presidentek <u>Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku Hartze Integralari buruzko Dekretuaren</u> GZEKren aginduzko txostena onartutzat eman du, gehiengoan onartu baita, kontrako 2 botoarekin eta 2 abstentziorekin.
--

3. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzueta III. Txostenari buruzko Gomendioen Batzordearen ondorioak aurkeztea.

Azken osoko bilkuran GSko legeak Gizarte Segurantzako Euskal Sistema hobetzeko GZEKri ematen dizkion gomendioak egiteko Batzorde bat sortzea adostu zen.

Batzorde honen (AAPPko 4 kidek eta erakunde sozialetako 4 kidek modu paritarioan osatutako Batzordearen) kanpoko aholkulari batek, Fernando Fantova jaunak, koordinatutako lana 4 bileretan zehaztu da. Fernando Fantova jauna egoera honetan Batzordera joan da eta gomendioei buruzko azken dokumentua aurkeztu du, eta hori ere organo honen onarpenaren mende egongo da.

- **Fernando Fantova** jaunak jarraitutako metodologia gogorarazi du jarduneko presidentek. Partaidetzako prozesu eta prozesu adostu baten bidez, SIIS fundazioak egindako EAEko GSren egoera-txostenetik abiatuta, lehenengo zirriborro bat landu da. Zirriborro hori ondorengo bileretan behin eta berriz aldatu da, baita GZEK-ko gainerako kideen ekarpenekin ere. Era honetara, adostasuneko azken testua lortu bat da, gutxi gorabehera, orain dela hamabi hilabete kide guztiei bidali zitzaiena, Kontseiluaren lana amaitu zenean, hain zuzen ere.

Gomendioei buruzko dokumentua 12 puntuko dokumentu labur eta sintetikoa da, eta parte-hartzaileen bateratze-lanaren bidez lortu da. Izan ere, parte-hartzaile horiek ekarpenak egin dituzte, baina dokumentuan jasota egotea nahiko luketen hainbat gaitan amore ere eman dute. Puntu horretatik aurrera ez da proposamenik jaso; beraz, gomendioen txostenak GZEK-ko kideen onespena duela ulertzen da.

Azkenik, jarduneko presidentek Kontseiluari parte hartzeagatik eta Gobernuari lan honetarako berarengan uste osoa izateagatik eskerrak eman dizkie, eta zalantzak, iruzkinak, eta abar erantzuteko prest dagoela adierazi du.

Kontseiluak, eta, batez ere, erakunde sozialek aholkulariaren lankidetzaren eta berak egindako lana eskertu dute. Izan ere, lan horren guztiaren emaitza txosten hau da, «*aurrera egiteko pausoak eman diren txostena*», adierazi du FEDERPENeko ordezkariak. Zeren horrelako kontzeptu berriak agertzen dira txostenean: pertsona kontuan hartzen duen arreta integrala; koordinazio soziosanitarioa eta esparru horretako akordioak; ingurune lagunkoiak eta hurbiltasunezkoak; kalitate-adierazleak; GSren jarraipena, etab.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** adierazi du «*aurkeztu genuen azterlanaren arazoetako bat denboran atzera dezente egiten zuela zen, bertako datuak 2010. urtekoak zirelako*». Ondorioz, errealitatea hutsaldu egiten da, zeren gizarteak 3 urtean asko aldatzen da. Hobetzeko proposamen gisa sistema aldatzea eskatu da, datu eguneratuak eduki daitezkeelako ESSEC (Sailak egingo duen Gizarte Zerbitzuei buruzko Inkesta) eta GPI (Gastu Publikoaren Inkesta) aintzat hartuta. Izan ere, horiek 2012ko datuak dira eta, horrela, azterlan eguneratuagoa nahiz osoagoa lortuko litzateke, EAEko gizarte-zerbitzuetako egoerari buruzkoa, noski. Gainera, GZEK-k Gomendioen Txostena egin beharko du, irailean, gutxi gorabehera.

- **GZEK-ko osoko bilkurak** erredakzio-batzordeak aurkeztutako gomendioak onartzea adostu du. Eta, era berean, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema hobetzeko Gomendioen Txostenean** jasoko dira.

4. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuari buruzko informazioa ematea.

- **Iñigo Pombo** jaunak aurreko osoko bilkuran berak eman zuen azalpenari jarraiki, hau adierazi du:

1.- Dekretuaren beste idazketa bat egin da testua aberasteko, eta ahalik eta ekarpen gehien jasotzen saiatu dira. Ekarpene horiek guztiak hilabete hauetan guztietan jaso dituztenak izan dira. Bere sailaren ustez, (azken zuzenketa formalen bateko gauzen bat salbu) zirriborro honen izaera ia-ia behin betikoa izango litzateke. Zirriborroa bilera amaitzen denean entregatuko da.

2.- «*Inbentario bat egin dugu, eta, bertan, 2011. urtean EAEn zegoena jaso dugu. Zein zerbitzu daude? Nork ematen ditu? Zenbat kostatzen dira? ESSECeko eta GPIko datuak erabili dira. Datu horiek erakundeekin erkatu dira eta kalitatezko datuak direla uste dugu. Datu batzuk zuzentzea falta zaigu behin betiko dokumentua egiteko.*»

Azaldu den inbentario honekin eta azaldu diren irizpideekin, Dekretua laster (agian, 2014ko 1. hiruhilekoan) aurkezteko moduan izango dela uste du jarduneko presidentek. Dekretu horrek memoria ekonomikoa eta mapa ere izango ditu, dekretu hori legea garapen batean denean ezartzeko, hau da, 2016ko Gabonetan. «*Atzeratuta gabiltza 2013ko uztailean egin genuen aurreikuspenarekiko. Horren zergatia Administrazioekin egin beharreko erkaketa izan da; izan ere, erkaketa hori aurreikusitakoa baino gehiago atzeratu da.*» Erkatze-lan hori behin betiko amaitzen denean (oraindik martxan dago egokitu beharreko datuen bat dagoelako), Gizarte Zerbitzuetako zifra handiak ekarriko dituzte Kontseilu honetara, zifra horien berri eman eta izan beharreko ondorioak izateko.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak** inbentarioko datuekin ados dagoela adierazi du, eta, horregatik, gai horretan, ez du inolako ekarpenik egin. Zorroari buruzko Dekretuari dagokionez, adostasun-dokumentu bat da. Bertan, Aldundiaren ekarpen gehienak jaso dira, baten bat kanpoan gelditu bada ere (badira 2 edo 3 funtsezkotzat jotzen dituztenak eta horiek jakinaraziko dituzte). Inbentario honekin batera, mapa berri hori taxutuko luketen pausoak zein izango liratekeen ezarriko luketen irizpide batzuk ere bazeudela aipatu nahi dute. Eta gai horretan, hain zuzen, kezkarik handiena daukate, zeren «onartu berri ditugun ondorioetan jasotzen den bezala, «unibertsaltasunaren» alde egitea garrantzitsua dela uste dugu eta mapa horrek ibilbide hori ez duela markatzen pentsatzen dugu.»

• **Gizarte Politiketako sailburuordeak** *Memoria Ekonomikoak* zein prestazio eta zerbitzu egongo diren eta 2016. urtearen amaieran zenbat kostako diren zehaztea eskatzen duela gehitu du. 2011ko datuak erabilia, populazioaren hazkundeak kontuan hartu eta kalkulatzeko izan da egindako aukera, eta aurreikuspen hori alda dezaketen 2 adierazle sintetiko aintzat hartu direla gogoratu du. Hauek dira 2 adierazle sintetiko horiek:

- 1.- 75 urtetik gorako biztanleria (etengabeko zahartzea > zerbitzuen beharra).
- 2.- DBEren eskaera-gehikuntza (krisi-egoera > zerbitzuen eta prestazioen beharra).

Baina, dena dela ere, bere ustez, eskubidea sortzen duena pertsona batek prestazio zehatz bat eskuratu ahal izateko betekizunak betetzea da, eta ez plangintza (gehiago edo gutxiago asma baitezake). Eskubide hori pertsonari onartzea da garrantzitsua, eta hori errealitateak markatzen du kasu bakoitzaren eta pertsona bakoitzaren arabera.

5. puntua.- Galde-eskeak.

• **Iñigo Pombo** jaunak 3 gai aipatu ditu:

1.- Kontseilu honek EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETORKINEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO FOROAN ordezkaritza dauka. Foro horretako azken osoko bilkura 2013ko azaroaren 11n izan zen, eta, bertan, «Immigrazioarekiko euskal estrategia» izeneko dokumentua aurkeztu zen. Dokumentu hori GZEK-ko kidei bidaliko zaie dokumentuaren berri izan dezaten.

2.- Aurreko osoko bilkuran aipatu zen bezala, Hirugarren Sektore Sozialaren Legeari dagokionez, bada testu prestatu bat jadanik eta konpromisoa Elkarrizketa Zibilerako Mahaian entregatzea da, testu hori izapidetzeko lehenengo pauso gisa.

3.- Diru-laguntzen deialdiak, 2014ko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen deialdiak, izapidetze aurreratua izan du eta agindua abenduaren 30eko EHAAr argitaratu da (eskaerak egiteko epea aste honetan amaituko da).

Ez denez beste eskaerarik edo galderarik egin, eta Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren gaia (batzorde honi laster deialdia egitea aurreikusia baitago) gogora ekarri ondoren, bilera amaitutzat jo da, 2014ko urtarrilaren 27ko 10:55ean.

IDAZKARIA

Ontzat emana
Jarduneko presidentea